


Emakumeen eta gizonen egoerari buruzko kopuruak Euskadin 2007



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


Panoramika demografikoa

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2.155.546 pertsona bizi dira guztira.

Horietatik erdia baino apur bat gehiago emakumeak dira (% 51,1). Sexuen arteko aldeak nabarmenagoak dira herritarren adin-taldea kontuan hartuz gero. Gaur egungo joera jarraituta, gizon gehiago daude emakumeak baino 45 urte arteko adin-taldeetan.

Hezkuntza eta Kultura

● Biztanleak adinaren eta sexuaren arabera (2007)



●
Kontrako zentzuan, sexuen arteko aldea 70 urtetik aurrera nabaritzen da; izan ere, adinekoen taldea batez ere, emakumez baitago osatua.
 ●


Lana

Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

Panoramika demografikoa



Hezkuntza eta Kultura

Bizi-itxaropena 85,6 urtekoa zen 2006an emakumeentzat eta 78,3 urtekoa gizonentzat; beraz, 7,3 urteko aldea zegoen. Baina aipatzekoa da **ezgaitasunik gabeko bizi itxaropena laburragoa dela: emakumezkoen kasuan 75,2 urte eta gizonezkoetan 69,7.**

● Bizi itxaropena

Emakumeak jaiotzerakoan - 2007

- Orokorra **85,6** gizonek baino 7,3 urte gehiago
- Osasun ona dutenak **75,2** gizonek baino 5,5 urte gehiago

- 85,6 urteko batez bestekoak Europar Batasuneko herrialde guztietako batez bestekoa gainditzen du (baita gizonezko kasuan ere, 78,3 urte).
- EAEko ertaina: 80,8 urte.
- Estatuko ertaina: 80,2 urte.

Lana

Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

Panoramika demografikoa

2005ean, **EAEko bizi-itxaropena 80,8 urtekoa zen; estatuko batez bestekoa (80,2) baino altuagoa, beraz.** Europako datuekin alderatuz gero, nabarmentzekoa da EAEko emakumezkoen bizi itxaropena (**85,6 urte**) **Europar Batasuneko herrialde guztietakoa baino handiagoa dela, eta gauza bera gertatzen da gizonezkoen kasuan (EAEn 78,3 urtekoa da).**


Hezkuntza eta Kultura

Lana

Gizarteratzea

Osasuna

● Europar Batasuneko bizi-itxaropena jaiotzean



Panoramika demografikoa

Hezkuntza eta Kultura

Lana

Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

Immigrazioa gaur egungo gizarte industrializatueta ezaugarria da. 2007ko datuen arabera, EAEn 98.524 **atzeritar** daude errolatuta eta populazio osoaren % 4,6 osatzen dute. **Sexuen arteko banaketa nahiko orekatua da: 48.708 emakumezkoak populazio atzeritarren % 49,4** osatzen dute. Atzeritarren ia erdiak (% 49,2) **Amerikakoak** dira, eta horietatik % **60 dira emakumezkoak**. Europatik etorritakoen artean, gizonak % 56,1 dira eta **Afrikatik etorritakoak % 68,1**. Azkenik, Asia eta Ozeaniakoak dira atzeritarren kopuru txikiena eta horietatik % 62 baino gehiago dira gizonetzkoak.

● Biztanle atzeritarrak, jatorriko kontinentearen eta sexuaren arabera (2007)



Panoramika demografikoa

Hezkuntza eta Kultura

Lana


Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

Autonomia erkidegoekin alderatuta, EAeko **9,5eko jaiotza tasa** altuagoa da Extremadura, Kantabria, Gaztela eta Leon, Galizia eta Asturiaskoa baino. Tasa altuenak Melilla eta Ceuta hiri autonomoei dagozkie. Mila biztanleko 16,7 eta 14,6 jaiotza izaten dituzte, hurrenez hurren. Datu horiei Europar Batasuneko herrialdeen arteko alderaketak gehitzen badizkiegu, ikusiko dugu 2006ko jaiotza tasak Frantziaren 13,1 eta Alemaniaren 8,2 artekoak direla (mila biztanleko jaiotakoak). **Europako datuekin alderatuta**, EAeko 9,5eko tasa nahiko baxua da, **Austriak, Esloveniak, Lituaniak eta Alemaniak bakarrik baitituzte tasa baxuagoak**. Laburbilduz, EAeko jaiotza tasa pixkanaka hazten ari den arren, oraindik ere baxua da oso.

● Jaiotza-tasa Europar Batasunean



Panoramika demografikoa

Hezkuntza eta Kultura

Lana


Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

Jaiotzetan eragin handia duen beste faktore bat **amek seme-alabak jaiotzeko unean duten adina** da. **EAE da batez besteko altuena duen autonomia erkidegoa: 32,3 urte, hain zuzen.** Europar Batasuneko estatuetan ama izateko batez besteko adina 30,9 urtetik (Espainia) 26 urterakoa (Bulgaria) da. Labur esanda, Espainia da batez besteko altuena duen herrialdea, eta estatu mailan altuena EAEk duenez, **euskal emakumeak ama izateko batez besteko adina Europako altuena dela esan daiteke.**

● Ama izateko batez besteko adina Europar Batasunean. (2005)



Panoramika demografikoa

Hezkuntza eta Kultura


Lana

Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

2006/07 ikasturtean 438.745 pertsona ziren EAeko hezkuntza maila eta zentro guztietan matrikulatuta zeuden pertsonak. Horietatik % 51,1 emakumezkoak ziren eta % 48,9 gizonzkoak. Irakaskuntzako maila eta mota bakoitzean sexuaren arabera sailkatzen baditugu ikasleak, unibertsitatetik kanpoko ikasketetan gizonzkoen proportzioa emakumezkoena baino zertxobait handiagoa edo askoz handiagoa zen; erdi mailako lanbide heziketan gizonzkoak % 60,3 ziren, goi mailakoan % 56,8 eta zereginen ikaskuntzan % 61,3. Bestalde, emakumezkoen proportzioa askoz altuagoa da unibertsitateko ikasketetan (% 54,3) eta araubide bereziko irakaskuntzetan (% 67,6). Unibertsitate ikasketetan ziklo luzeak dira aipatzekoak, emakume portzentajea oso handia delako (% 57).



Batxilergoko aukeretan sexuen araberako aldeak nahiko nabarmenak dira. Aurreko urteetako joerari jarraituz, giza zientzien batxilergoan matrikulatutako ikasleen % **78,5 emakumezkoak dira, eta zientifiko-teknikoan matrikulatutakoak, berriz, % 35,4 bakarrik**. Era berean, osasun zientzien eta artearen batxilergoan, hamar ikasletik zazpi neskak dira.

Panoramika demografikoa

Autonomia erkidego eta hiri autonomo guztietako datuei begiratuta, ikus dezakegu giza eta gizarte zientziak direla gehien hautatzen dituzten aukerak; izan ere, batxilergoan matrikulatutakoen artean, 157.505 pertsonak egin baitzuten aukera hori (% 51). Mota horretako batxilergoan, emakume gehiago dago gizonezkoak baino autonomia erkidego guztietan, eta EAE da, hain zuzen ere, ehuneko handiena duena (% 65,1). Teknologia arloan, bestalde, kontrakoa da joera: autonomia erkidego gehienek % 25 baino neska kopuru txikiagoa dute (EAEn 20,4%). Errioxa da salbuespen bakarra (% 32,9).

Hezkuntza eta Kultura

Batxilergoko aukerak

	Guztira	Emakumeak
Arteak	192	% 71
Osasun zientziak	2.471	% 72
Gizarte zientziak	2.709	% 67
Zeintifiko-Teknikoa	3.260	% 35
Giza zientziak	741	% 79
Guztira	9.373	% 58

Lana

Lanbide heziketako ikasketa motan are alde handiagoak daude sexua kontuan hartuz gero. Erdi mailako lanbide heziketako ikasketetako matrikulak aintzat hartuta, ikus daiteke **mutil gehienek fabrikazio mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika adarrak aukeratzen dituztela. Oso neska gutxi egiten dituzte aukera horiek: lehenengo kasuan, neskek % 6,3 dira eta bigarrenen % 4,2. Emakumezko gehien dagoen adarra osasunarena da. Bertan % 8,1 bakarrik dira mutilak.**

Gizarteratzea

Lanbide heziketa

3/21 adar: proportzio orekatua

% 75 (emakumeak/gizonak) baino gehiago dagoen adarrak:

Emakumeak	Gizonak
<ul style="list-style-type: none"> Osasuna. Irudi pertsonala. Administrazioa. Gizarte, kultura eta komunitateko zerbitzuak. Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza. 	<ul style="list-style-type: none"> Nekazaritzakoak. Itsas arrantzakoak. Fabrikazio mekanikoa. Elektrizitatea, elektronika. Zurgintza eta altzarigintza. Ibilgailu autopropulsatuaren mantentzea. Produkzioko mantentze eta zerbitzuak. Informatika.

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

Panoramika demografikoa

Hezkuntza eta Kultura

Lana


Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

Eurostatek Europar Batasuneko herrialdeen hezkuntza maila neurtzeko eskura jarritako adierazleetako bat bigarren mailako ikasketak amaitu duten 20-24 urteko pertsonen ehunekoa da. Ikus dezakegunez, Estatuen arteko aldeak handiak dira kontu honetan. Badira, hala ere, bi joera nagusi: alde batetik, azken 10 urteotan bilakaeraren joera goranzkoa izan da eta, bestetik, gizonen ehunekoak txikiagoak dira. 2006ari dagozkien azken datuen arabera, emakumeen ehuneko baxuena Maltan dago, % 52,8rekin. Esanguratsua da Espainiak (bigarren mailako ikasketadun 20-24 urteko emakumezkoak % 69) bi herrialde bakarrik zituela atzetik zerrendan, Malta eta Portugal. Hiru bakarrik dira bi sexuen kasuan % 90etik gorako ehunekoak dituztenak: Eslovakia, txekia eta Polonia. Eustatek emandako datuen arabera, goi mailako ikasketak dituzten **20-24 urteko EAEko emakumeak adin horretako emakume guztien % 86,4 dira.**

● Bigarren mailako ikasketak gainditu dituzten emakumeen ehunekoa, herrialdeka



Panoramika demografikoa

Hezkuntza eta Kultura

Lana


Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

2007an ISEIk (Unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Euskal Erakundea) **Eskola uzte goiztiarra** txostena kaleratu zuen, eta bertan EAEk alor horretan zuen egoera aztertzen zuen, baita estatuan eta Europan zuena ere. Nahiz eta Europako herrialdeetan gero eta gutxiago diren ikasketak uzten dituztenak, herrialde asko oso urrun daude EBk 2010erako duen % 10eko helburutik. 2006an sei herrialde bakarrik iritsi ziren helburu horretara: Austria, Finlandia, Eslovakia, Polonia, txekia eta Eslovenia. Malta eta Portugal daude eskola uztearen zerrenda buruan, atzetik Espainia % 29,9ko ehunekoarekin dutela. Sexuaren arabera sailkatutako datuei begiratzen badiegu ikusten da herrialde guztietan emakumeei dagozkien tasak gizonezkoenak baino baxuagoak direla. **EAE n eskola uzten duten emakumezkoen tasa % 8,6koa da, Europar Batasunak 2010erako aurreikusitako baino baxuagoa. Gizonezkoak, aldiz, aurreikuspen horretatik urrutia go daude, eskola uzten duten gizonezkoen tasa emakumezkoenaren bikoitza baino altuagoa baita, % 20,4koa, hain zuzen. Autonomia erkidegoei dagokienez, EAE n eta Nafarroan dituzte eskola uzten dutenen tasa baxuenak, % 14,5 eta % 13, hurrenez hurren, biak estatuko batez bestekoaren oso azpitik.**

● Ikasketak goizegi utzi dituzten 18-24 urte bitarteko herritarren ehunekoa Europar Batasunean, sexuaren arabera (2006)




Panoramika demografikoa

2006/2007 ikasturtean, EAEko **unibertsitateetan matrikulatutako ikasleak** 63.691 ziren guztira. Horietatik erdia baino zerbait gehiago (34.643) emakumeak ziren (% 54,4). Titulazio motaren arabera, asko aldatzen da matrikulatutako pertsona kopurua eta sexukako banaketa. Lizentziaturetan 27.801 pertsona daude, eta horietatik % 64,1 emakumezkoak dira. Diplomaturetan dago kopuru altuena (% 71,4), eta ingeniarietza teknikoetan eta arkitekturen teknikoan emakumeak % 26,4 besterik ez dira.


Hezkuntza eta Kultura

● Emakumeak edo gizonak % 75 baino gehiago matrikulatuta dituzten unibertsitate titulazioen zerrendak (2006-2007 ikasturtea)



Lana

● Ikasleen % 75 baino gehiago gizonak diren ikasketak (2006-2007 ikasturtea)



Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

Panoramika demografikoa

2006/2007 ikasturtean, EAEn, maila guztietako **irakasleak** 36.702 ziren guztira. Aurreko urteetan bezala, **sektore horretan emakumezkoak dira gehienak (% 66,5)**. Sexuaren arabera egindako sailkapenaren beste ezaugarri bat ondokoa da: hezkuntza mailan gora egin ahala, **emakumezkoen proportzioa txikitu egiten dela pixkanaka**.

Hezkuntza eta Kultura


Lana

Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

● Irakasleak



Panoramika demografikoa

Hezkuntza eta Kultura

Lana

Gizarteratzea


Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

Lanarena da gizonetzkoen eta emakumezkoen artean alde handienetakoa duen esparrua. **Aurreko txostenean adierazi bezala, datuek erakusten dute erreprodukzio lan zama handiena emakumeen esku dagoela; izan ere, etxeko lanen % 70 baitago haien esku.** Erreprodukzio lana emakumeen esku egotea, ez da izaten bakarrik gizon gehiago aritzen direlako produkzio lanetan, lan horietara bideratutako denbora astegunetan zein igande eta jaiegunetan errepikatu egiten baita.

Emakumeak lan merkatuan sartu izanak eta lana eta familia uztartzeak ez du Euskadin lan banaketa orekatuagoa sortu. Horrek moteldu egiten du emakumeek produkzio jarduera handitzea. 1985etik 2007ra, igotzen joan da **emakumeen parte-hartzea lan merkatuan: % 32 izatetik % 45 izatera pasatu da.** Nahiz eta aurrerapenak izan diren, Eurostatek 2005erako dituen datuen arabera, Belgika, Grezia eta Italiak dute gaur egun Euskadik baino emakumeen jarduera tasa txikiagoa.

Lana



Emakumeei gehiago eragiten die langabeziak, baina generoen arteko aldea gutxitu egin da. 1985ean, emakume eta gizonen langabezia tasaren arteko aldea 21 puntukoa zen; gaur egun, berriz, 3,3an dago kokatua. **Emakumezkoek lan merkatuan bizi duten egoerak, aldiz, gizonetzkoenak baino ezegonkorragoa izaten jarraitzen du.**

Panoramika demografikoa

Hasteko, lana duten emakumezkoek sektore ekonomiko ezberdinetan duten presentzia desorekatua da. Emakumezkoen % 87,5ek zerbitzuetan egiten du lan. Bigarrenik, emakumezkoek egonkortasun gutxiago dute lanean. Gainera, lan egiten duten gizonen % 80k lan kontratu mugagabea dute baina emakumezkoek dagokienez, % 70ek dute lan kontratu mugagabea. Era berean, ez kontratu mugagaberik, ez aldi baterako kontraturik ez duten emakumezkoak % 6,2 dira. Gizonezkoen % 0,2ri soilik eragiten die fenomeno horrek.

Hirugarrenik, datuek berriro erakusten dute emakumezkoak lanaldi partzialerako kontratatze joerak gora egin duela. Lan egiten duten emakumezkoen % 28k lanaldi partziala dute. Gizonezkoen kasuan, tasa hori % 4,2koa da.

Hezkuntza eta Kultura


Lana

Okupazioa

%87,5 emakume zerbitzuen sektorean
Urtean 5.850 euro GUTXIAGO

Laneko ezegonkortasuna + 10p
Kontraturik ez duten landunen %87 dira
%28 denbora partzialeko lana (gizonak %4,2)

Ugalketa-lana



Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

Panoramika demografikoa

Hezkuntza eta Kultura

Lana


Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

Euskadin emakumeak aldi baterako kontratatzeko dagoen tasa handienetakoa da, beste autonomia erkidego batzuekin konparatuz gero, baina Europar Batasuneko batez besteko kopuruetan dago kokatuta.

● Lanaldi erdiko enplegua Europar Batasuneko herrialdeetan. Guztiaren gainera % (2006)



Panoramika demografikoa

Hezkuntza eta Kultura

Lana

Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

Emakume eta gizonen arteko banaketa, lan egoera kontuan hartuta, desberdina da hiru multzotan; enplegatzaileak, autonomoak eta sektore publikoan lan egiten dutenak. Horren erakusle, emakume okupatuen % 1,8 eta gizonen % 3,6 dira enplegatzaileak. Horren erakusle, emakume okupatuen % 8,4 eta gizonen % 14,3 dira autonomoak. Emakume okupatuen ia % 20 sektore publikoan dabil, eta gizonen % 10.

● Egoera profesionala

	Emakumeak (%V)	Gizonak (%V)
Enplegatzailea	1,8	3,6
Autonomoak	8,4	14,3
Familia laguntzak eta bestelakoak	0,6	0,2
Kooperatibatako kideak	2,5	2,0
Sektore publikoko soldatapekoak	19,3	9,7
Sektore pribatuko soldatapekoak	67,1	70,1
Sailkatu gabe	0,3	2,3

Alde handiak daude jasotako soldatan sexuari begiratuz gero. 2006ko datuen arabera, 6.233,07 eurokoa da emakumezkoen eta gizonen soldaten arteko urteko batez besteko aldea.

Erreproduktzio eta produktio lanaren arteko ezberdintasunek pertsonen independentzia ekonomikoari eragiten diote. **Hala, lanaldiak aldi batekoak edo partzialak izateak, zerbitzuen sektorean lan egiteak eta merkatuan lan egoera jakin bat izateak dakar gizonezkoek emakumezkoek baino % 40 gehiago irabaztea, sexuaren arabera sailkatutako lan egiten duten pertsonen soldatak kontuan hartuta.** Langileen urteko batez besteko soldata 23.859 eurokoa da, eta lan egiten duten emakumezkoena, berriz, 16.833 eurokoa. Gizonezko langileek emakumezkoek baino gehiago irabazten dute lanbide guztietan. Horrela, zuzendari gerente gizonezkoek urtean batez beste 37.299 euro irabazten dituzte soldatan, eta postu horretan lan egiten duten emakumezkoek, berriz, 21.171 euro.

● Soldatak

Urteko batez besteko errenta / EURO


Landunak (emakumeak) 16.833

Landunak (gizonak) 23.859

Zuzendari kudeatzaileak (emakumeak) 16.833

Zuzendari kudeatzaileak (gizonak) 37.299

Ugalketa-lana



Panoramika demografikoa

Hezkuntza eta Kultura

Lana

Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria


Pertsonak gizartean duten kokapenaren eraginetako bat bere egoera ekonomikoaz duten pertzepzioa da. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak egindako *Gizarte Zerbitzuak eskatzeko txostena 2006*ren arabera, inkestatutako gizonen % 61,5ek adierazten dute egoera erosoak dutela eta, aldiz, hori bera dioten emakumeak % 42 besterik ez dira. **Halaber, beste muturrean, txiroak edo oso txiroak diren emakumeak % 6,2 dira, eta gizonen kasuan % 2,3.**

● Egoera ekonomikoaren pertzepzioa



Etxeetako egoera ekonomikoari dagokionez, adierazle esanguratsua da eguneroko gastuei aurre egiteko daukaten moneta funts likidoa eta, hala behar denean, ezusteko gastuei aurre egiteko. Egoerarik larrienak (aurrezpenik gabeko desfase ekonomikoa) ohikoagoak dira emakumeak buru diren etxeetan, gizonezkoak direnetan baino. **Emakumea buru duten etxeen % 24,6k gizarte zerbitzuetara jo dute azken hiru urteetan.** Aldiz, gizonak buru diren etxeetan, ehunekoa erdia baino txikiagoa da (% 11,8).

● Pobreziaren feminizazioa



Panoramika demografikoa

EAEEn bizi diren pertsonen orokorrean hautemate positiboa dute beren osasunaren gainean, eta estatuko batez besteko adierazleak baino zertxobait ezkorragoak. Horri dagokionez, ez dago alde handirik emakumeen eta gizonen artean. Azken urteetako joerak erakusten du gero eta ikuspegi positiboagoa daukatela, nahiz eta, adinean aurrera egin ahala, ikuspegia okertu egiten den.

Hezkuntza eta Kultura

Diagnostikorik ohikoenei eta ospitalizazioaren iraupenari dagokionez, emakumeen eta gizonen kasuak ezberdinak dira. Emakumeen kasuan, ospitaleratzeko arrazoi nagusia haurdunaldia eta erditzea da (kasuen % 22,8an). Gizonen kasuan, diagnostiko ohikoenak, aurreko urteetan bezala, zirkulazio aparatukoak eta urdaileko ultzerak dira (% 19,8 eta % 19,3 hurrenez hurren). Ospitalizazioaren iraupenari dagokionez, ia kasu gehienetan, gizonek denbora gehiago ematen dute ospitalean, diagnostiko bera duten emakumeek baino.

Lana

● Ospitalizazioa


Diagnostikoa

Emakumeak	Gizonak
<ul style="list-style-type: none"> ● Haurdunaldia eta erditzea. ● Nerbio sistema eta zentzumenak. ● Zirkulazio aparatua. ● Digestioarekin loturiko gaixotasunak. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Zirkulazio aparatua. ● Digestioarekin loturiko gaixotasunak. ● Arnasketa sistema.
IRAUPEN LUZEAGOA	

Gizarteratzea

Emakumeei bakarrik eragiten dieten zenbait gaixotasunen prebentzioari dagokionez (azterketa ginekologikoak, baginako zitologiak eta mamografiak), EAEko emakumeen % 85,15 noizbait joan da ginekologoarenera, EAEko emakumeen % 75,3k egin du noizbait zitologia eta EAEko emakumeen erdiak baino gehiagok (% 57) egin du noizbait mamografiarik.

● Prebentzioa

	● Azterketa ginekologikoa.	%85
	● Umetoki-lepoko minbiziaren diagnostiko goiztiarraren proba.	%75
	● Bularreko minbiziaren diagnostiko goiztiarraren proba.	%57

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

Panoramika demografikoa

Hezkuntza eta Kultura

Lana

Gizarteratzea

Osasuna

Emakumeen aurkako indarkeria

2007an aurkeztutako salaketa guztien artean (4.205), % 88,8 delitu gisa tipifikatu zituzten eta % 11,2 hutsegite gisa. Delitu gehienak familian izandako ohiko tratu txarrak izan ziren, eta hutsegiteak lesioekin eta mehatxuekin egon ziren lotuta. Indarkeria eta tratu txarrak familian edo biktimaren gertuko esparruan gertatzen dira gehienbat. Kasuen % **75,5**ean, biktimaren bikotea izaten da erasotzailea. **Hiru emakume hil ziren indarkeriaren edo tratu txarren ondorioz**; 16 oso larri zaurituta egon ziren eta **1.192k** zauri arinak izan zituzten. Biktima gehienak emakume gazteak edo helduak izaten dira. Hala, 32 urte baino gutxiagoko emakumeak ziren salatzailen % 43,5, 33 eta 59 urte artekoak % 49,6, eta hortik gorakoak % 6,5.

Sexu askatasunaren aurkako delituei dagokienez, 2007an **275 salaketa** izan ziren, bereziki sexu indarkeriari eta sexu gehiegikeriei zegozkienak. Erregistratutako kasuen biktima gehienak emakume gazteak izan ziren; Hala, **32 urte baino gutxiagoko emakumeek egindakoak dira salaketen % 73,4**.

Etxeko tratu txarrak

- 4.205 salaketa.
- 3.223 ezkontidearenak edo analogoarenak.
(kaltetutako 2.535 emakume).
- hildako 3 emakume.
- zauri larriak dituzten 16 emakume.
- zauri arinak dituzten 1.192 emakume.

Sexu delituak

- 275 salaketa.
- %73,4 32 urtetik beherako emakumeak.